



Ertzillatarrak, garai baten paradigma

Uzt. 14 - Uzt. 15 2022

Kod. F03-22

Mod.:

Aurrez aurrekoa



Edizioa

2022

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 14 - Uzt. 15 2022

Kokalekua

Arrantzaleen museoa (Ertzilla dorrea)

Hizkuntzak

Gaztelera Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA





Azalpena

Lope García de Salazar bandokidearen *Bienandanzas e fortunas* liburuak leinu askori buruzko informazioa eskaintzen digu eta penintsularen iparraldeko leinuek elkarren artean izandako liskarrak kontatzen ditu, Bizkaiko kasuari arreta berezia eskainiz. Liburu honetatik lortzen den materiala izugarria da eta genealogiaren, osaketaren eta beraien arteko harremani buruzko argazki bikaina eskaintzen digu, baita leinu hauek Gaztelako Erreinuko goi mailako nobleziarekin edo erregetzarekin izan zituzten harremani buruzkoa ere.

Bi mendetan zehar izandako harreman eta lotura sozial horiek guztiak Bermeoko familia batean daude islatuta: Ertzillatarrak. Ertzillatarrengan gure historiaren une bat marrazten duten funtsezko elementuak aurkitzen ditugu. Ercilla familia, nolabait, gure mundua eraldatu zuten gizarte-aldaketa batzuen eredu izan liteke.

Martinek, Bermeo Bizkaiko Burua zuen Behe Erdi Aroko Bizkaia irudikatzen du. Arteagatarren sagaren seme, bandoen arteko borroketara, batzar-etxera edo foru zaharrera garamatza. Ertzillatarren oinordekoa armadorea, militarra eta merkataria zen. Bere seme zaharrenak jasoko ditu oinordetzan dorrea eta itsasontziak. Bestalde, seme gazteena, Fortun, eite eta nortasun guztiz errenazentistako legelari eta politikaria izan zen. Alonso, azkenik, iturri horien guztien oinordekoa, baina, aldi berean mundu berri bateko gizona.

Era berean, emakumearen presentzia funtsezkoa da familia/saga horren bilakaera ulertzeko, gure hiru protagonisten profilak aholkatu, kudeatu eta bideratu baitzituzten. Emakumeek itsasoarekin duten harremana askotarikoa eta bizia izan da mendeetan zehar, eta haien lana ikusarazteko eta aintzat hartzeko beste aukera baten aurrean gaude.

Ikastaro honetan sendi honen garrantzia aztertuko dugu eta, aldi berean, ondare historikoaren hedapenari eta hezkuntzari buruzko gogoeta egingo da, ondareak, elementu bereizgarri gisa, gizartean duen balio eta iraunkortasunaz kontzientzia sortzeko. Testuinguru honetan, ondare historikoa funtsezko hezkuntza-baliabidezat daukagu, hau osatzen duten ondasunak gure aurreko jardueren emaitza direla uste dugulako. Gainera, aberastasun emaleak dira, eta baliagarri zaizkigu ez bakarrik denboraren joana orainalditik berreraikitzeke eta egituratzeko, baita zientziarako eta ezagutza historikorako baliabide gisa ere.

Helburuak

Zer harreman eta lotura sozial mota ezartzen dira familietan?

Zer harreman mota ezartzen dira goi mailako nobleziarekin eta monarkiarekin, eta zer eragin du bertako testuinguruan?

Zer neurritan eragiten du familiaren arrakastak gertuko eremuan?

Zer botere-harreman ezartzen dira eta nola agertu ziren horiek aro modernoan? Zer rol jokatu zuten familia hauek? Zer geratzen zaigu familia-eredu horretatik?

Zer rol hartzen du emakumeak familia-eredu horretan? Nola proiektatzen da figura hori genero-berdintasuna sustatzeko orduan?



Zer neurritan da beharrezkoa ondare historikoa zabaltzea Ercilla familiak dituen figurak ezagutarazteko?

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak





Programa

2022-07-14

08:45 - 09:00	Registro / Erregistroa
09:00 - 09:25	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: Aritz Abaroa Cantuariense Ayuntamiento de Bermeo - Alcalde de Bermeo Gorka Moreno Márquez UPV/EHU - Vicerrector del Campus de Bizkaia Asier Romero Andonegui UPV/EHU - Profesor Titular Mikel Mancisidor de la Fuente Universidad de Deusto - Profesor Titular
09:25 - 10:10	“Tratando de explicar la historia de Bermeo a través de sus familias y linajes al final de la Edad Media” José Ramón Díaz de Durana Ortiz de Urbina UPV/EHU - Catedrático
10:25 - 11:10	“Antecedentes y contexto histórico que explica a los Ercilla en su solar” Asier Romero Andonegui UPV/EHU - Profesor Titular Aitor González Gato UPV/EHU - Licenciado
11:25 - 11:55	Atsedena
12:10 - 12:55	“Participación de las mujeres vascas en el contexto socio-económico familiar durante la Baja Edad Media vizcaína” Janire Castrillo Casado UPV/EHU - Profesora adjunta (Zoom bidez parte hartuko du)
13:00 - 13:30	Sintesia
17:00 - 19:00	“Visita guiada al Bermeo del siglo XVI: resto, ecos y evocaciones” Jesús Muñiz Petralanda

2022-07-15

09:15 - 10:00	“La ampliación del espacio territorial en las estrategias familiares” José Ángel Achón Insausti Universidad de Deusto - Catedrático de Universidad
10:15 - 11:00	“Evolución y cambio de las familias de la élite vasca en el paso de la Edad Media a la Edad Moderna” María Dolores Valverde Lamsfus UPV/EHU - Catedrática emérito
11:15 - 11:45	Atsedena



12:00 - 12:45	<p>“De Juan Pérez y María de Arteaga a Alonso de Ercilla: cuatro generaciones para explicar una época”</p> <p>Mikel Mancisidor de la Fuente Universidad de Deusto - Profesor</p> <hr/>
13:00 - 13:30	<p>Sintesia</p> <hr/>
16:00 - 17:30	<p>Mahai ingurua: “Ertzilla familia Bermeoko ondare historiko eta kulturala zabaltzeko eta sustatzeko eredu gisa / La Familia Ercilla como oportunidad de difusión y promoción del patrimonio histórico-cultural de Bermeo”</p> <p>Asier Romero Andonegui UPV/EHU - Profesor Titular (Moderatzailea) Juan Antonio Apraiz Zallo Ayuntamiento Bermeo - Capitán de la marina mercante Bittor Uriarte Anasagasti IES Ignacio Arocena - Profesor Naiara Bilbao Quintana UPV/EHU - Profesora adjunta Amaia Apraiz Sahagún Ikusmira Ondarea</p> <hr/>

Zuzendariak



Asier Romero Andonegui

UPV/EHU, Decano de la Facultad de Educación de Bilbao

Hispaniar filologian lizentziaduna (1997) eta doktorea (2005) Deustuko Unibertsitatean. UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultatearen irakaslea 2006tik. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako zuzendariordea (2011-2013); Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren sailako koordinatzailea (2016-2018). Bilboko Hezkuntza Fakultateko dekanoa, 2018az geroztik. EUDIA ikerketa-taldea zuzentzen du, talde egonkorra aitortua euskal unibertsitate sisteman, 1 doktorego tesiaren zuzendari izan da. Gainera, 34 GRAL eta 17 MALeko zuzendu ditut. Irakasle bisitari izan da Central Unibertsitatean (Txilen). 8 ikerketa proiektuan aritu da, horietatik 2etan ikertzaile nagusi gisa. Egilekide argitalpen ugarrtan: 75 artikuluko zientifiko, 8 liburu eta 18 liburu kapitulu. 50 ekarpen inguru egin ditu estatuko eta nazioarteko biltzarretan. CNEAIk aitortutako 2 (ikerkuntza) eta 1 (transferentzia) seiurteko ditu. Bikain ziurtagiria DOCENTIAZ jaso du.



Mikel Mancisidor de la Fuente

Universidad de Deusto

Mikel Mancisidor Zuzenbidean lizentziatua da eta Nazioarteko Harremanetan eta Diplomazian doktorea. NBEko DESC Batzordeko Zientzia eta Giza Eskubideei buruzko Iruzkin Orokorraren relatorea izan da. Batzorde horretako kidea 2013tik. Nazioarteko Zuzenbideko eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideko irakaslea Deustun, American Universityn eta René Cassin Institutuan. Eskubideen Urrezko Domina 2013 eta Euskadiko Kutxa Saria - Eusko Ikaskuntza

Irakasleak



José Ángel Achón Insausti

Deustuko Unibertsitateko katedraduna da, eta graduko, graduondoko eta doktoretzako hainbat irakasgai eman ditu, batez ere Ideien eta Mugimendu Sozial eta Politikoaren Historiaren arloan. Era berean, ardura akademikoko hainbat kargu bete ditu erakunde berean: historia Saileko zuzendaria (1998-2003), Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko dekanoa (2003-2012) eta Fakultate bereko dekanordea (2015-2020). Bere ikerketa-lana ehundik gora ekarpen zientifikotan gauzatu da, hainbat formatutan, 13 libururen egiletza, egilekidetza edo argitalpena eta 51 liburu-kapituluren edo aldizkari-artikuluren argitalpena nabarmenduz. Era berean, 51 Kongresu eta Ikerketa Mintegitan parte hartu du, eta artikulua eta monografiaren ebaluazioak egin ditu hainbat argitaletxe eta aldizkarirentzat.



Amaia Apraiz Sahagún

Ikusmira Ondarea

Amaia Apraiz Sahagún Artearen Historian doktorea da, eta kontsultore independente gisa lan egiten du kultura-ondarean, Ikusmira Ondarea enpresaren barruan. Bere ibilbide profesionalean ikerketa-, balioespen-, hedapen- eta interpretazio-lanak egiten ditu. Bere ustez, gizonentzat eta emakumeentzat etorkizun berdina lortzeko ezinbestekoa da emakumeek kultura-ondareari egiten dizkieten ekarpenak ezagutzea eta zabaltzea, eta hori lortzeko aktiboki lan egiten du. 2015etik 2019ra bitartean, Bizkaiko Ondarearen Europako Jardunaldien edukiak koordinatu zituen, eta nabarmentzekoa da 2018ko edizioa («Patrimonio, herencia de mujer»), emakumeek ondare komunari egindako ekarpenak zabaltzeari buruzkoa. Gaur egun Women 's Legacy programaren edukien arduraduna da, eta Europa osoko profesionalekin lan egiten du kultura-ondarearen interpretazioan genero-ikuspegiarekin aurrera egiteko. Gainera, ondare garaikidean eta paisaia kulturaletan esperientzia du.



Juan Antonio Apraiz Zallo

Merkataritzako Itsasontzietako kapitaina (1984), Itsas Arrantzako eta Garraioko teknikaria (2003), Bilboko portuko Noatum S A edukiontzien terminaleko burua 2002tik erretiroa hartu zuen arte (2018). Ondare Historikoaren, Artxiboen, Museoen eta Liburutegien Dokumentazioan eta Kudeaketan espezializatzeko diploma (2005). Itsas arrantzako ikertzaile eta dibulgatzailea hainbat argitalpenen eta ikerketa-lanen egilea da, eta itsas munduarekin eta ondarea berreskuratzearekin lotutako ikastaroak eta hitzaldiak ematen ditu. Eusko Ikaskuntzako kidea eta Bermeoko Arrantzaleen Museoko, Donostiako Untzi Museoko eta Bilboko Itsasmuseumeko aholkularia.



Naiara Bilbao Quintana

Bilboko Hezkuntza Fakultatea

Hezkuntzan doktorea, gaur egun Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU-UPV) irakasle atxikia da eta Didaktika eta Eskola Antolakuntzako saileko kidea. Ikerketa jardueren bitartez Hezkuntza Teknologia, Ulermenerako irakaskuntza eta Pentsamendu ikusgarriari lotutako prozedurak garatzen ditu. Jardunean dauden irakasleei Hezkuntzaren Berrikuntza, Curriculumaren Garapena, Konpetentzien Ebaluazioa, eta Ulermen eta Pentsamendu Ikusgarriari buruzko eskolak eman dizkie, beste gai batzuen artean.



Janire Castrillo Casado

UPV/EHU

Licenciada en historia (2008) y doctora por la Universidad del País Vasco (2016). Comenzó su actividad académica en el Departamento de Historia Medieval, Moderna y de América de dicha Universidad como investigadora predoctoral, realizando varias estancias de investigación en universidades francesas durante dicha etapa. En la actualidad, ejerce como docente e investigadora en el Departamento de Didáctica de las Ciencias Sociales de la Facultad de Ciencias de la Educación y el Deporte de la Universidad del País Vasco, y forma parte del grupo de investigación Sociedad, poder y cultura (siglos XIV-XVIII) liderado por José Ramón Díaz de Durana. La orientación de sus temas de investigación se ha centrado en el estudio de las mujeres en el País Vasco durante los siglos XIV y XV, que fue el eje de su tesis doctoral titulada Régimen jurídico, económico y social de las mujeres vascas durante la Baja Edad Media.



José Ramón Díaz de Durana Ortiz de Urbina

UPV/EHU

Catedrático de Historia Medieval en la UPV/EHU, es IP del Grupo de Investigación Sociedad, poder y cultura, siglos XIV-XVI y del Proyecto De la Lucha de Bandos a la hidalguía universal: transformaciones sociales, políticas e ideológicas en el País Vasco (siglos XIV y XV). Inició su trayectoria científica con la tesis doctoral dirigida por el Profesor José Ángel García de Cortázar: Álava en la Baja Edad Media. Crisis, recuperación y transformaciones socioeconómicas (c. 1250-1525), Vitoria, 1986. El análisis de la sociedad rural y urbana, la economía y las instituciones locales y territoriales han sido las constantes habituales de sus estudios, que progresivamente han ido ampliándose territorial y temáticamente. Primero al País Vasco y más tarde al conjunto de la Cornisa Cantábrica. Temáticamente, a partir de los años 90, ha orientado la investigación hacia el estudio de la hidalguía en el norte peninsular. <https://ehu.academia.edu/JoséRamónDíazdeDurana>



Aitor González Gato


Erdi Aroko eraikuntza historikoan aditua, batez ere Euskal Herriko Erdi Aroko hiribilduak babesten zituzten gotorlekuetan. Horrela, eraikin bereizgarri horri buruzko hamar monografia baino gehiago idatzi ditu: Bermeo, Durango, Portugalete, Elorrio, Plentzia, Bilbo, Urduña, Lekeitio eta Balmaseda. Era berean, dorretxeetan zentratutako beste lan batzuk ere egin ditu, hala nola Ertzilla Dorrea edo Ybargüengo Dorrea.



Jesús Muñiz Petralanda

Facultad de Letras

Jesús Muñiz Petralanda (Galdakao, 1965). Licenciado en Historia del arte (Salamanca, 1988) y Diplomado en Gestión del Patrimonio (Deusto, 1999). Fue Conservador del Museo de Arte Sacro de Bilbao entre 2002 y 2013. Su atención como investigador se ha centrado en el estudio del arte mueble de la Baja Edad Media en el País Vasco. Es autor de diversos libros al respecto: el Legado de Flandes (escultura tardogótica en Bizkaia), imágenes del Arcángel San Miguel en Bizkaia, El arte en la cruz (sobre los cruceros de Elorrio), San Martín de Arrieta, El retablo recuperado y algunas monografías sobre la Basílica de Begoña, la Parroquia de San Miguel de Basauri o el Patrimonio religioso de la villa de Lekeitio o el Casco Viejo de Bilbao, entre otros, además de dos páginas web sobre Retablos Flamencos esculpidos en España y Retablos Tardogóticos en Euskadi. Actualmente culmina su tesis doctoral sobre El retablo Tardogótico esculpido en el País Vasco Atlántico, que será defendida este próximo otoño.



Bittor Uriarte Anasagasti

Historia eta Geografian lizentziatua. Bermeoko institutuan Historiako irakasle zen eta urte batzuetan zuzendaritza karguak izan zituen. Elkar lanean, Bermeoko udal artxiboa aztertu eta antolatzen ibilia. Argitalpen artean hauek azpimarra daitezke: elkar lanean, Bermeoko udal artxiboaren indizea (Bermeoko udala, 1982); elkar lanean, Bermeo eta Mundaka (2006); Iruñe Allikarekin, Bermeoko toponimia (Bermeoko udala, 2007); elkar lanean, Rober Garayen Canterburyko paperen misterioa komikia (2012); Euskal Herriaren Historia (sarean eskuragarri) (2017); Fernando Hierro eta A. Astuirekin, Bermeoko Historia iruditan (argitaratu gabe). Gainera, Bermeoko historiari buruzko zenbait hitzaldi eman ditut.



María Dolores Valverde Lamsfus

Euskal Herriko Unibertsitateko Historia Garaikideko katedradun erretiraturua, Gipuzkoako lehendakariordea izan da Eusko Ikaskuntzan (1994 - 1999) eta doktorego eta master ikastaroak eman zituen Nafarroako Unibertsitate Publikoan 1992tik 2016ra, irakasle gonbidatu gisa. Iura Vasconiae Fundazioko patroia da. Fundazioko lehendakaria izan zen 2008 eta 2012 artean. Hainbat aldizkari zientifikotako erredakzio-batzorde askotan parte hartu du, besteak beste, Revista Internacional de los Estudios Vascos, Historia Contemporánea, Vasconia, Saioak eta Iura Vasconiae aldizkarietan. Landu dituzun ikerketa-gaiak, neurri handi batean, emakumeen historiari, Euskal Herriko familiaren historiari eta abandonatutako haurtzarolari buruzkoak dira, betiere ikuspegi sozial eta kultural batetik.



Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2022-07-14 ARTE

Orokorra

40,00 EUR



Kokalekua

Arrantzaleen museoa (Ertzilla dorrea)

Torrontero enparantza, 48370 Bermeo

Bizkaia